

Basque Label Fest jaialdia egingo dute asteburuan

Zarauzko Hitza 2016-09-19 14:21 KULTURA

Euskal Herriko II. Sagardo Txapelketa Herrikoiairen hirugarren finalerdia egingo dute ostiralean, Merkatu plazan.



Gaur aurkeztu dute jaialdi gastronomikoa turismo bulegoan (Aritz Mutiozabal). | 

[Ikusi handiago](#) | [Argazki originala](#)

Zarauzko Turismo bulegoak, Zurekin Zarauzko Ostalarien Elkartek eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek Zarautz Basque Label Fest jaialdi gastronomikoa antolatu dute elkarlanean, datorren ostiralera eta larunbatera begira. Eusko Label eta kalitatezko produktuak "bultzatu eta merezi duten balioa" ematea duela helburu nabarmendu du Turismo zinegotzi Ixidor Larrañagak.

Kalitatezko produktuak eta ostalaritza "bateragarriak ez diren mitoa" badela dio Zurekineko ordezkari Igor Azpitarteak, "oso garestiak diren ustea dagoelako". Ekitaldiarekin pertzepzio horiek uxatu nahi dituzte, eta bien uztartzea posible dela erakutsi. Horretarako, Eusko Label produktuekin egindako gosariak, pintxo nahiz platerak eta menuak

ZARAUTZ/ KULTURA

- [Ostegunean egingo dute Kuadrilla Eguna antolatze biler](#)
- [Basque Label Fest jaialdia egingo dute asteburuan](#)
- [Sofia Avramidouk irabazi du Francisco Escudero Lehiaketa](#)
- [Joxe Mari Zuazobide omendu dute Itxasmendin](#)
- [Irudietan: Itxasmendi auzoko jaiak](#)
- [Bideoa: Itxasmendiko I. Motoen Kontzentrazioa](#)
- [Akordeoi Astea azken txanpan sartu da](#)
- [Moto hotsa nagusi, Itxasmendiko jaietan](#)
- [Sormen proiektuetarako diru-laguntza eska dezakete gazteek](#)
- ["Bertsopaperei beste zabalkunde bat bilatu beharko litzaieke"](#)
- [Itxasmendin jaiak, gaurtik igandera arte](#)
- [Gazteentzako irakurketa kluba sortu dute Sanz Enean](#)
- ['The Trip to Spain' telesail britainiarrarako irudiak grabatu dituzte eskualdean](#)
- [Itxasmendiko jaietako egitaraua ikusgai](#)
- [Alprojaren 'ZRTZ 2016: Kultur herriburua' antzezlan](#) Erlo Telebista

eskainiko dituzte larunbatean Zurekin elkarteko hainbat ostalariek.

Pintxo dastaketa

Larunbatean bertan, 12:00etatik 14:00etara, pintxo eta plateren adastaketa izango da Lege Zaharren enparantzan. Euromar kafetegiak, Kirkilla Enea jatetxeak eta Itxas lur, Euskalduna eta Txiki Polit tabernekek ekitaldirako propio eginiko "irudimen handiko sorkuntzak" aurkeztuko dituzte, eta herritarrek horiek dastatu ahal izango dituzte Getariako txakolinarekin, Araba Errioxako ardoarekin eta Eusko Label sagardoarekin.

Egunean zehar bestelako ekitaldirik ere izango da: Mikel Garaizabalen dastaketa gidatua, haurrentzako *Baserrian amets* antzerkia, Kintopekoen Harri-jasotze Txapelketa eta Joxe Mendizabalekin dantzaldia.

Basque Label Fest ekitaldi solidarioa izango da, gainera. Pintxo dastaketatik, Mikel Garaizabalek gidatutako dastaketatik eta haurrentzako antzerki emanalditik biltzen duten dirua Zarauzko Odol Elkarteari bideratuko diote.

Sagardo Txapelketako finalerdia

Ostiralean abiatuko dute Basque Label Fest ekitaldia, Euskal Herriko II. Sagardo Txapelketa Herrikoien finalerdiarekin. Zarauzkoa hirugarren eta azken kanporaketa izango da; lehena Ordizian egin zuten, irailaren 9an, eta bigarrena joan den larunbatean, Azpeitiko Iraurgi taldearen tabernan. Merkatu plazako goiko solairuan izango da, 20:30ean hasita, afari-dastaketa bidez, eta afarirako txartelak Kirkilla-Enea, Euromar, Txiki-Polit, Itxas-Lur eta Euskaldunan eros daitezke, 25 euroan.

Guztira 36 sagardotegik hartu dute parte txapelketan, eta finalerdi bakoitzean hamabina sagardo ezberdin dastatu ahal izan dira. Herritarrek emandako puntuazioaren arabera erabakiko zeintzuk sailkatuko diren larunbateko Andoaingo finalerako, baina herritarrek ez dute jakingo dastatzen duten sagardoa zein etxetakoa den. Gipuzkoako Sagardo Elkarteko ordezkari Olatz Mitxelenak adierazi du "saltsa eta giro polita" sortzen dela parte hartzaileen artean.

ADI UROLA KOSTA!



Enpresentzako Zerbitzuak
www.urolakosta.eus
Tel. 943890808

ADI UROLA KOSTA!



Enpresen arteko lankidetzeta eta enpresetan adimen lehiakorra sustatzeko programa

☰ [Zarautz Basque Label Fest \(egitaraua\)](#)

Zabaldutako artikulua:



Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

Sartu

»» [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)



Twitter-ekin



Facebook-ekin

[Honi buruz](#)

[Legezko oharra](#)

[Publizitatea](#)

[Kontaktua](#)

Urola Kostako Hedabideak S.L.

Araba kalea 25, 20800 ZARAUTZ
(Gipuzkoa)
Tel: 943 89 00 17 / IDATZI EMAILA



[Codesyntaxek garatua](#)

TOKIKOM



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia



f



You
Tube